


AEBko bi zientzia-akademia nagusi emakumeak lehenesten ari dira



ARG.: Artxibokoa.

Azken 20 urteetan, emakumezkoek lehenetsua izan dute AEBko Zientzia Akademian (NAS) eta Arteen eta Zientzien Akademian sartzeko, argitalpen- eta aipamen-historial bertsuko gizonezkoekin alderatuta. Ondorio horretara iritsi da nazioarteko ikerketa-talde bat, kideak hautatzean izan den genero-arrakalaren 60 urteko bilakaera aztertuta, hiru arlotan: psikologia, ekonomia eta matematika.

EHUko kide Nagore Iriberrri Etxebeste izan da ikertzaileetako bat, eta, ikerketaren arabera, duela 60 urte emakumezkoek probabilitate txikiagoa zuten akademiko gisa hautatuak izateko, antzeko argitalpen- eta aipamen-historiak zituzten gizonezkoen aldean. 90eko hamarkadan, bi akademietako hautaketa-prozesua gutxi-asko neutroa zen, generoaren ikuspegitik. Eta azken hogeita urteetan, emakumezkoen aldeko lehenetsun positiboa hautematen da hiru arloetan.

Nolanahi ere, Iriberririk adierazi du akademia horietako emakumeen ordezkaritza oraindik ez dela "inondik inora % 50era iristen matematikan eta ekonomian", psikologian ez bezala. ●

Animalia basatien populazioak berreskuratzea, onuragarria klima-larrialdiari aurre egiteko

Animalia-espezie gako batzuen populazioak berreskuratuta eta babestuta, asko hobetu daiteke karbonoaren harrapaketa eta metaketa naturala, eta horrek asko lagunduko luke klima-larrialdiari aurre egiten. Ondorio hori atera dute *Nature Climate Change* aldizkarian argitaratu berri duten ikerketa batean.

Izan ere, animalia basatien zuzenean eragiten dute beren ekosistemako karbonoaren zikloan. Hala, lan honetan ikertzaileek bederatzi animalia edo animalia-talderen eragina kalkulatu dute: itsas arrainak, baleak, marrazoak, otsoak, ñuak, itsas igarabak, idi musketadunak, elefante afrikarrak eta bisonte amerikarrak. Eta ikusi dute ezen, animalia horien populazioak babestuta eta berreskuratuta, urtean 6,4 mila milioi tona CO₂ gehiago harrapatzea lor litekeela.

Azpimarratu dute aukeratu dituzten adibideez gain beste hautagai apropos mordo bat daudela. Gainera, animalia horien giza jarduerak eragin handia dutenez, ikusten dute badela erraz berreskuratzeko aukera kondizio egokiak jarritz gero. Horrela, lortuko litzateke karbonoaren zikloan eragitea eta askoz karbono gehiago harrapatzea. ●



ARG.: Christel Sagniez/Pixabay.